XEDAPEN OROKORRAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

1569

EBAZPENA, 2026ko martxoaren 9koa, Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakariarena, auto-taxietan eta trenbideetan bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SAk eta Artxandako Funikularra-Funicular de Artxanda, SAk aurkeztutako 2026. urterako tarifak onartzen dituena.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2026ko martxoaren 9an egindako bileran, erabaki bat hartu zuen, eta, jende guztia jakinaren gainean egoteko, segidan transkribatzen da haren xedapen-zatia.

ERABAKIA

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan sartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek aurkeztu dituzten eskaerak autotaxiko bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzu publikoa 2026. urtean emateko tarifak berrikusteko.

Bidaiariak auto-taxiz garraiatzeko hiri barruko garraioari dagozkion tarifak eta Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SAk. (Eusko Tren) eta Artxandako funikularrak eskaintzen duten trenbide-zerbitzuari dagozkionak prezioak kontrolatzeko araudiaren mende daude, «autonomia-erkidegoaren eremuko prezio baimenduak» modalitatean, Zerga-arloko eta Jarduera Ekonomikoa Sustatu eta Liberalizatzeko Premiazko Neurriei buruzko ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren 16.4 artikuluaren arabera (ekainaren 8ko BOE, 139. zk.).

Eskumen hori betetzea Euskadiko Prezioen Batzordearen eginkizuna da, Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duen otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuarekin bat etorriz (otsailaren 16ko EHAA, 31. zk.) eta Baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedura ezartzen duen Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Aginduari jarraituz (uztailaren 6ko EHAA, 128. zk.).

Aipatutako arauen helburua da nolabaiteko ekonomia-oreka bat lortzea, premiazkoa baita prezioak ezartzeko mekanismoak kontrolatzea, bizitzaren kostua aintzat hartuta.

2026. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedientea aztertu ondoren, tarifak nahikotzat jotzen dira, eta uste da zerbitzua emateagatiko kostuen egituraren barruan sartzen diren kontzeptuetara egokiturik daudela.

Hori guztia kontuan hartuta, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko udalek aurkeztutako auto-taxien hiri-zerbitzuaren 2026rako tarifak baimentzea, balio erantsiaren gaineko zerga barne:

1.– Soraluze-Plasencia de las Armaseko Udala.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua
6,4968	1,6269	21,7449	7,0743	1,8005	22,8652

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, bai eta igandeetan, jaiegunetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.
(3) Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen ditu.

2.– Donostiako Udala.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)			5. tarifa (3)		
Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxarote-ordua
6,4142	0,9008	26,1530	7,4315	1,3976	34,8707	7,4471	1,4465	36,0911

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da larunbatetan, igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere. Betiere, 5. tarifa aplikatu behar ez bada.
* Donostian, 2. tarifa lanegunetan 22:00etatik hurrengo eguneko 07:00etara eta Donostiako Aste Nagusiko aste barruko egunetan aplikatuko da, bai eta San Tomas egunean ere, hau da, abenduaren 21ean
(3) Tarifa hau ostiral, larunbat eta jai-bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta jaiegunetako 07:00etara aplikatuko da.
(4) Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen ditu.

3.– Leioako Udala.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua	Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua
6,81	1,45348835	21,64	7,42	1,60706474	28,18

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.
(2) Tarifa hau igandeetan, autonomia-erkidegoko eta tokiko jaiegunetan, eta larunbatetan 13:00etatik aurrera aplikatuko da. Lanegunetan 22:00etatik 07:00etara ere aplikatuko da.
(3) Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea hartzen du.

Bigarrena.– Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SAk (Eusko Tren) eta Artxandako funikularra-Funicular de Artxanda SA enpresak emandako zerbitzuaren 2026. urterako tarifa hauek baimentzea: ondoren adierazten diren kontzeptu eta zenbatekoetan, balio erantsiaren gaineko zerga eta bidaiarien nahitaezko asegurua barne:

1.– «Artxandako Funikularra-Funicular de Artxanda SA» enpresak ematen duen funikularraren zerbitzuaren tarifak.:

	2026. urtea
Aldian behingoa	3,50
Aldian behingoa (joan/etorria)	6,00
KIDE	0,73

2.– Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SAk (Eusko Tren) emandako tarifak.

a) Trenbiderako tarifak:

– Bizkaia Linea Nagusia.

Gunea	Diru-txartel A	Joana
1	1,02	2,00
2	1,20	2,20
3	1,30	2,25

Gunea	Diru-txartel A	Joana
4	1,90	3,40
5	2,45	4,50

*Eremu mistoa hartzen du (Ermua-Deba).

– Bizkaiko Txorierriko linea.

Gunea	Diru-txartel A	Joana
1	1,02	2,00
2	1,20	2,20

– Lurralde artekoa.

Lurralde historiko batean hasi eta beste batean amaitzen diren bidaiak dira, eremu mistoa (Ermua-Deba/Deba-Ermua) zeharkatu eta hiru eremu edo gehiago hartzen dituztenak.

Gunea	Diru-txartel A	Joana
3-8	4,10	7,20

– Gipuzkoa.

Gunea	Diru-txartel A	Anonimoa A	Diru-txartel J	Joana
1	0,99	1,30	0,79	1,95
2	1,47	1,93	1,18	2,90
3	2,73	3,59	2,18	5,40
4	4,00	5,25	3,20	7,90

*Eremu mistoa hartzen du (Deba-Ermua).

c) Tranbiarako tarifak:

– Bilbao.

Joana	Diru-txartel A
2,00	0,74

– Vitoria-Gasteiz.

Joana	Diru-txartel A	Hilekoa A (Tran+Tuvisa)	Hilekoa J (Tran+Tuvisa)
2,00	0,74	32	26,30

d) Tren Osagarrizko Zerbitzuak:

– Usansolo Galdakaoko ospitaleko autobusa.

Joana	Barik A J R
0,85	0,11

– Kukullagako igogailua.

Joana	B10
0,85	3,70

e) Larreinetako funikularra + anezka autobusa: tarifak

Joana	IV	Diru-txartel A	Hilekoa
2,00	3,40	1,02	22,00

f) Tarifa murriztuak:

			Mugi R	Barik R	Bat R
Trena	LH: Bizkaia	1	1,02	0,61	1,02
		2	1,20	0,61	1,20
		3	1,30	0,61	1,30
		4	1,90	0,61	1,90
		5	2,45	0,61	2,45
	Bizkaia-Txorierri	1	1,02	0,61	1,02
		2	1,20	0,61	1,20
	Lurralde-artekoa	3-8	4,10		
	LH=Gipuzkoa	1	0,48	0,99	0,99
		2	0,71	1,47	1,47
		3	1,31	2,73	2,73
		4	1,92	4,00	4,00
Tranbia	Bilbao		0,74	0,42	0,74
	Vitoria-Gasteiz		0,74	0,74	0,42
Funikularra + Autobusa			1,02	0,64	1,02

Hirugarrena.– Erabaki honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 9a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JAKES AGIRREZABAL IRIBAR.